

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA  
GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA**

**PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE**

**KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN**

**EUSKARA ETA LITERATURA  
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

**2022ko Azaroa / noviembre 2022**

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**



Proba honek bi atal ditu: bata testuaren ulermenari eta hizkuntzaren ezagutzari lotua; eta bestea, idazmenari. Atal bakoitzak bost (5) puntu balio du.

Idazmenean, gai beraren inguruko bi testu proposatzen dira: luzea eta laburra. Azterketariak aukeratuko du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du\*. Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatzeko, bi atalen arteko batzbestekoa egingo da:

- Testuari lotutako galderen puntuazioa (5 puntu)
- Idazmenaren puntuazioa (5 puntu)

Gaztelania eta literatura proba ere modu berean baloratuko da.

\* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo litzateke idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.

En esta prueba se puntuará de manera separada la expresión escrita del resto de las cuestiones. Las primeras siete cuestiones sobre el texto se puntuarán con un total de 5 puntos.

La expresión escrita, por su parte, se puntuará también con un máximo de 5 puntos. El texto que el alumno escoja para escribir en castellano, ya sea el texto corto o el texto largo, se puntuará con 5 puntos, por lo que la puntuación total del examen de Lengua Castellana saldrá de la media de las dos puntuaciones:

- Puntuación de las cuestiones sobre el texto
- Puntuación de la expresión escrita

La prueba de euskara se valorará de la misma manera.

En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.



## JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.
2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, zure erantzunak berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio zeinuei. .

## INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.



# 1ª PARTE

## LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2022ko Azaroa / noviembre 2022

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

## 1º parte

# LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

## La crisis del agua: no solo falta inversión, también necesitamos nuevas políticas

**Dos próximas cumbres mundiales pueden ayudar a empezar a responder a los desafíos hídricos: la COP27 en Egipto en noviembre de este año y la cumbre del Agua de ONU en Nueva York en marzo de 2023**

Pablo Bereciartua

[12 sept 2022 - 05:30 CEST](#)



¿Ficción o realidad? **Se** impone racionamiento del consumo de agua en el sur de España y en Francia frente al mes de julio más caliente del que haya registro. Hay alertas sobre la falta de agua en Alemania y Polonia por la bajante histórica de ríos como el Rin o el Danubio. Londres

implementa restricciones al consumo de agua por la seca de las fuentes del río Támesis. Al mismo tiempo hay inundaciones históricas en Pakistán con millones de personas desplazadas y miles de afectados. En América del Sur, el río Paraná presenta el estiaje más prolongado desde 1884 con impactos crecientes en la logística para la exportación de Argentina, Paraguay, Bolivia y Brasil. En Estados Unidos, la sequía afecta seriamente a California y la cuenca del Río Colorado también enfrenta mínimos históricos que ya afectan a más de 40 millones de personas que dependen de él para su vida y economía. Y podría seguir.

Parece una película, pero es real. La crisis hídrica por el cambio climático se ha anticipado y la vemos por todos lados. Si no reaccionamos solo queda esperar que se agrave en los próximos años. Según la región del mundo en que



estemos, enfrentamos más o menos incertidumbre, extremos y tendencias que se están acelerando y nos obligan a adaptarnos. No se trata de un tema de los países en vías de desarrollo, como se asume en muchos lugares del mundo desarrollado, es un tema global.

La pregunta es ¿por qué si sabemos que el cambio del clima afecta al ciclo del agua, no estamos mejor preparados para enfrentar esta crisis? La solución radica en la forma que pensamos sobre este recurso.

Muchas regiones serán muy distintas en los próximos años como consecuencia del cambio climático y los consecuentes cambios en sus recursos hídricos. No podemos seguir sumando políticas y regulaciones de forma fragmentada y sectorial (agricultura, energía, salud, abastecimiento de ciudades). Debemos lograr integrar y coordinar entre los sectores y entre los gobiernos y los privados.

No solo hay que aumentar la oferta –por ejemplo, con más desalinización, o la capacidad de almacenamiento para garantizar la disponibilidad de agua–, también habrá que lograr mayor eficiencia y mejor gestión de la demanda en los distintos usos, con el uso de nuevas tecnologías como la inteligencia artificial o de nuevos incentivos.

Tenemos dos cumbres mundiales por delante que pueden ser una oportunidad para empezar a responder a estos desafíos: la COP27 en Egipto en noviembre de este año y la Cumbre del Agua de la ONU en Nueva York en marzo de 2023. Ojalá que en ambas se consolide la agenda de la adaptación al cambio climático, que es en gran medida la nueva agenda del agua.

(adaptado de ) <https://elpais.com/planeta-futuro/2022-09-12/la-crisis-del-agua-no-solo-falta-inversion-tambien-necesitamos-nuevas-politicas.html>



1. Responde a las siguientes cuestiones sobre el texto: (1 punto)

A. ¿Dónde puede estar publicado este texto? Dé dos razones que apoyen su respuesta: (0.25 puntos)

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

B. ¿Este texto es: narrativo, argumentativo o expositivo? (0.25 puntos)

-----

¿Por qué cree que el texto pertenece a ese tipo textual? (0.5 puntos)

De al menos 2 razones

-----  
-----  
-----

2. Exprese en una frase (máximo 2 líneas) el tema central del texto (0.5 puntos)

-----  
-----  
-----

3. Explique el sentido de esta expresión del texto: (0.5 puntos)

“Se impone racionamiento del consumo de agua....”

-----  
-----



---

---

**4. Diga si la siguiente afirmación es verdadera o falsa y explique el porqué de su respuesta. (0.5 puntos)**

“La crisis del agua es un tema de países subdesarrollados”

---

---

---

**5. ¿Puede explicar el significado de la palabra “estiaje” que aparece en la siguiente frase del texto?: (0.5 puntos)**

“En América del Sur, el río Paraná presenta el **estiaje** más prolongado desde 1884”

---

---

---

**6. Defina que es un acrónimo y ponga un ejemplo (en el texto aparecen dos) (0.5 puntos)**

---

---

---

---

---





7. Sustituye los términos subrayados por sinónimos, teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (0.5 puntos)

	SINÓNIMO
“Londres <b>implementa</b> restricciones al consumo ...”	
“La solución <b>radica</b> en la forma que pensamos ...”	
“Muchas regiones serán muy <b>distintas</b> en los próximos años ...”	
“...para empezar a responder a estos <b>desafíos...</b> ”	

8. A continuación, tiene una lista de varios escritores-as del siglo XIX.: José Zorrilla, Gustavo Adolfo Bécquer, Rosalía de Castro, José de Espronceda, Ángel de Saavedra, duque de Rivas. Todos ellos pertenecen a un mismo movimiento literario. (1 punto)

¿Sabría decirnos a que movimientos nos referimos?

Relacione cada autor con su obra

Obras: “Don Juan Tenorio”, “El estudiante de Salamanca”, *Rimas y Leyendas*, “Don Álvaro o la fuerza del sino”, “En las orillas del Sar”

	Obra
Rosalía de Castro	
José Zorrilla	
Gustavo Adolfo Becquer	
José de Espronceda	
Ángel de Saavedra, duque de Rivas	



## 2. ATALA

# EUSKARA ETA LITERATURA

2022ko Azaroa / noviembre 2022

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

## 2. atala

# EUSKARA ETA LITERATURA

## Europan azken bostehun urteetako lehorterik handiena espero dute

Kontinentearen erdialdeko eta mendebaldeko estatuak ezohiko bero boladak eta lehortek ari dira pairatzen, klima larrialdiagatik. Suteek berotegi gas asko isuri dute zenbait herrialdetan



[Gorka Berasategi Otamendi](#)



Esteron ibaiaren ibarreko tarte lehortu bat, Niza hiritik gertu (Okzitania), uztailaren amaieran. SEBASTIEN NOGIER / EFE

2022ko abuztuak 14

Klima larrialdiaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira mundu osoan, eta horren isla da Europa hegoaldearen eta mendebaldearen egoera: ezohiko tenperatura altuak, lehortek, suteak, ur eskasia, ur erabilerari ezarritako murrizketak eta uztak arriskuan. Europako Batzordearen IBZ Ikerketa Bateraturako Zentroak ohartarazi du, bere iragarpenen arabera, lehortek kontinentearen %47ri eragiteko arriskua dagoela, eta aurtengoa azken bostehun urteetako lehorterik gogorrena izatea espero dutela.

«Irudikatzearen, 2018ko lehortea hain izan zen muturrekoa, ezen ez baitago haren parekorik azken bostehun urteetan, baina aurtengoa 2018koa baino okerragoa izango dela uste dut», adierazi zuen herenegun Andrea Toreti IBZko ikerlariburuak.



Orain arteko datuak oso kezkarriak dira, haren esanetan, azken neurketen emaitzek marka ugari apurtu dituzte, baina egoerak okerrera egingo du oraindik, IBZren arabera, eta hori da ikerlarien kezkarik handiena. «Hurrengo hiru hilabetei begira, baldintza lehorretarako arrisku handia ikusten dugu Europa mendebaldean eta erdialdean, eta Erresuma Batuan». Toretik nabarmendu du arrisku hori ez dela uxatuko berotegi gasak modu eraginkor batean murrizteko berehalako neurriak hartzen ez badira. «[Lehorteen] Intentsitatea eta maiztasuna dramatikoki handituko da Europa osoan, iparraldean nahiz hegoaldean».

Lehortek erraztu dituen suteek ez dute berotegi gasen isuria murrizten lagunduko. Copernicus Europako Batasunak klima aldaketa aztertzeke sorturiko zerbitzuak jakinarazi du suteek karbono dioxido isurien gorakada nabarmena eragin dutela Iberiar penintsulan eta Frantziako Errepublikan. Azken horren kasuan, esaterako, orain arteko erregistro guztiak gainditu dituzte datuek, ekaineko, uztailako eta abuztuko aldiari dagokionez —2003an hasi ziren neurketak egiten—.

## ITALIA

Azken hamarkadako idortarik latzena bizi du Italiak, eta bereziki nabaria izaten ari da herrialdearen iparraldea zeharkatzen duen Po ibaiaren ibarrean. Haren uraren mendeko dira inguruko nekazariak, eta dagoeneko milaka milioi euroren galerak izango dituztela uste dute. Po ibaiaren ur jario ahula pizteko, Garda aintzirako ura askatzeari ekin zion gobernuak, baina iturriko giltza estutu behar izan zuen uztailaren amaieran, lakua babesteko, eta haren bueltako jarduera turistiko garrantzitsua mantentzeko. Garda aintzira inoizko ur mailarik apalenean da. Italia iparraldean, ez da eurite esanguratsurik izan azken hilabeteetan, eta elurteak %70 murriztu dira aurten. Ondorioz, mendi elurtuetatik ur gutxiago iritsi da erreketara.

## FRANTZIA

Lurralde osorako ur kontsumo murrizketak ezarri ditu Frantziako Gobernuak, lehortegatik. Ezohiko tenperatura altuak neurtu dituzte egunotan, eta hezetasunik ezak bide eman die zenbait eskualdetan kalte handia eragiten ari diren suteei. Frantziak laguntza eskatu dio Europari horiei aurre egiteko. Aurten kiskalitako lur eremua azken hamar urteetan batez beste erre dena halako hiru da. Bordele ingurukoak kezkatzen du bereziki, pinu lehorren basoetan azkar hedatu daitekeelako indartzen bada iragarrita dauden haize biziakin.

<https://www.berria.eus/paperekoa/1942/014/001/2022-08-14/europan-azken-bostehun-urteetako-lehorterik-handiena-espero-dute.htm> (Egokitua)

**Erantzun testuari buruzko galdera hauei:**

**1. Zein eragin izaten ari da klimaren larrialdiak Europan? Biribildu erantzun zuzena. (0.5 puntu)**

- A. Lehortea dugu Europa osoan.
- B. Berotegi gasak handitu dira Europako iparraldean nahiz hegoaldean.
- C. Haize bolada beroak dituzte kontinentearen erdialdean eta mendebaldean.
- D. Euririk eza jasaten ari dira kontinentearen erdialdean eta mendebaldean.

**2. Zein lotura du argazkiak artikuluan esaten denarekin? (0.5 puntu)**

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

**3. Zer iragarri du Ikerketa Bateratuko Zentroak aurtengo urterako? (0.5 puntu)**

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

**4. Zein da, Andrea Toretiren ustez, lehorteari aurre egiteko modua? (0.5 puntu)**

-----  
-----  
-----  
-----  
-----



5. Zergatik igo dira hainbeste berotegi gasaren erregistroak ekainean, uztailean eta abuztuan? (0.5 puntu)

-----

-----

-----

-----

-----

6. Eman ezazu belztuta dagoen hitz bakoitzaren sinonimo bat, esaldian duen esanahia kontuan izanik, adibidean dagoen bezala. (Puntu 1)

Testuko hitzak	Sinonimoak
...lehortea hain izan zen <b>muturrekoa</b> ...	
...elurteak %70 <b>murriztu</b> dira...	
... <b>klima</b> aldaketa aztertzeke sorturiko zerbitzuak...	<b>eguraldi</b>
... <b>idortarik</b> latzena bizi du...	
...azkar <b>hedatu</b> daitekeelako...	

7. Zer esan nahi du testuko esaldi honek: "**Haren (Po ibaiaren) uraren mendeko dira inguruko nekazariak,...**" (0.5 puntu)
- A. Nekazariak Po ibaiaren ura erabiltzen dute edateko.
- B. Nekazariak Po ibaiaren ura behar dute nekazaritzarako.
- C. Po ibaiaren inguruko nekazariak ura ordaindu behar dute.
- D. Po ibaiaren inguruko nekazariak ez dute uztarik jasotzen.



8. Zertarako eskatu dio Frantziak laguntza Europari? (0.5 puntu)

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

9. Zein da artikulu honen asmoa? (0.5 puntu)

- A. Lehortearen berri ematea.
- B. Aldaketa klimatikoari buruzko iritzia ematea.
- C. Eguraldiari buruzko iragarpena egitea.
- D. Klima larrialdia ekiditeko neurriak azaltzea



### 3. ATALA

## IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

## EUSKARA ETA LITERATURA LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**





<p>Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.</p> <p><b>KONTUZ!</b> Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten badituzu, ez da kontuan hartuko atal hori.</p>	<p>En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tratan sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual. Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera.</p> <p>Pero, <b>CUIDADO</b>, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.</p>
---	---

<b>TESTU LABURRA (5 puntu)</b>	<b>TEXTO CORTO ( 5 puntos)</b>
<p><b>Emaila idatziko diozu lagun bati (90-100 hitz)</b></p> <p><b>Egoera:</b> Gaur egun, klima aldaketa presente dago gizartean. Ur falta planeta osoan zabaltzen den arazoa da, eta horregatik zure auzoan gaiari buruzko hitzaldi bat antolatu da.</p> <p><b>Ataza:</b> Lagun bati idatzi behar diozu azalduz, zergatik den komenigarria hitzaldi horietara joatea eta planetaren ingurumen-zaintzan eta uraren kontsumo arduratsuan inplikatzeari.</p> <p>Testuak <b>90-100 hitz</b> eduki behar ditu.</p>	<p><b>Debes escribir un email a un amigo (90-100 palabras)</b></p> <p><b>Situación</b> Hoy en día, el cambio climático está presente en la sociedad. La falta de agua es un problema que se extiende por todo el planeta y por ello se ha organizado una charla sobre el tema en tu barrio.</p> <p><b>Tarea:</b> Debes de escribir a un amigo explicándole porque es conveniente acudir a estas charlas e implicarse en el cuidado ambiental del planeta y en el consumo responsable del agua.</p> <p>El texto debe tener entre 90-100 palabras.</p>

<b>TESTU LUZEA (5 puntu)</b>	<b>TEXTO LARGO (5 puntos)</b>
<p><b>Ur-eskasiari eta klima-aldaketari buruzko iritzia eman behar duzu (180-200 hitz)</b></p> <p><b>Egoera:</b> Egoera: Pertsona batzuek uste dute klima-aldaketa ez dela gertatzen ari den zerbait. Beste batzuen ustez, ordea, gertatu diren aldaketek ez dute erremediorik, eta gure planetan aldaketa handiak eta arriskutsuak aurreikusten dituzte</p>	<p><b>Debes opinar sobre la escasez de agua y el cambio climático. (180-200 palabras)</b></p> <p><b>Situación:</b> Algunas personas piensan que el cambio climático no es algo que esté sucediendo. Otros en cambio, consideran que los cambios que se han producido ya no tienen remedio y pronostican grandes y peligrosos cambios en nuestro planeta.</p>



**Ataza:** Klima aldaketari eta munduko ur faltari buruz duzun iritzia emango duzu

Hurrengo galderak lagungarriak izan daitezke zure iruzkinerako: Egia al da udak gero eta luzeagoak direla? Hondamendi naturalak (uholdeak, lehorteak, etab.) gero eta ohikoagoak al dira? Premiazko neurriak hartu behar al dira? Zergatik? Zer neurri har daitezke ura aurrezteko? Ur eskasiak gatazkak eta gerrak sor ditzake?

Testua antolatzeko kontuan hartu egitura hau:

- Sarrera: gaia aurkeztu eta adierazi hari buruz duzun iritzia.
- Gorputza: bi paragrafotan idatzi iritzi horren aldeko edo kontrako argudioak.
- Ondorioa: azken paragrafoan esandakoaren ondorioak idatzi.

**Tarea:** Vas a dar tu opinión sobre el cambio climático y la falta de agua en el mundo

Las siguientes preguntas pueden ser de ayuda para tu comentario: ¿Es cierto que los veranos son cada vez más largos? Las catástrofes naturales: inundaciones, sequías, etc, ¿son cada vez más frecuentes? ¿Es necesario tomar medidas urgentes? ¿Por qué? ¿Qué medidas se pueden tomar para ahorrar agua? ¿La escasez de agua puede crear conflictos y guerras?

A la hora de organizar el comentario ten en cuenta la siguiente estructura:

- Introducción: Presenta el tema y da tu opinión
- Desarrollo: En dos párrafos escribe argumentos a favor y en contra
- Conclusión: en un último párrafo escribe las conclusiones

Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:

- Boligrafoz idatzi
- Saiatu garbi idazten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzi behar duzula.
- Zirriborro bat egin ideiak hobeto antolatzeko.
- Zirriborrea azterketarekin batera eman.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.
- Zure idazlana zuzentzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - Ea eskatutakoa bete duzun
  - Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun
  - Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun.

- Utilizar bolígrafo para escribir.
- Intentar hacer una letra clara.
- Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas.
- Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas.
- Entregar el borrador con el examen.
- Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito.
- Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios:
  - contestar a lo solicitado.
  - escribir un texto adecuado.
  - utilizar una lengua correcta, coherente y rica.

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

**TESTU LABURRA (5 puntu) / TEXTO CORTO (5 puntos)**

Emaila lagun bati/email a un amigo ( 90-100 hitz/palabras)

.....  
.....  
.....  
.....

5.....  
.....  
.....  
.....  
.....

10.....  
.....  
.....  
.....  
.....

15.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

**TESTU LUZEA ( 5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)**

Iritzi testua / Texto de opinión ( 180-200 hitz/palabras)

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....  
.....

25.....

.....  
.....  
.....  
.....

30.....

.....  
.....  
.....  
.....  
.....